

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**226/2017 Foru Agindua, uztailaren 20koa, behin betiko onartzen duena, baldintzekin, Aiarako udal planeamenduko arau subsidiarioen 7. aldaketaren espedientea, El Ferial eraikinaren kalifikazioa aldatzeari buruzkoa**

#### I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Aiarako Udalak, 2016ko azaroaren 17ko osoko bilkuran, behin-behineko onarpena ematea erabaki zuen planeamenduko arau subsidiarioen aldaketaren espedienteari, Arespalditzako El Ferial ekipamendu publikoaren kalifikazio aldaketari buruzkoari; bai eta espediente hori hilabete jendaurrean jartzeari ere. Azken horretarako, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOn (2016ko azaroaren 30a, 134. zk.) eta El Correo egunkarian (2016ko azaroaren 25a). Era berean, udalerriko administrazio batzarrei ere jakinarazi zitzaien.

Bigarrena. Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalbatzak, 2017ko urtarrilaren 19ko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalaren apirilaren 6ko 2/2017 bilkuran, espedientearen aldeko txostena eman zuen.

Laugarrena. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2017ko apirilaren 21ean sartutako idazki baten bidez, Aiarako Udalak espedientea bidali zuen, behin betiko onar zedin.

Bosgarrena. Espedientea ez da jarri ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren pean, ez baitago inolako ingurumen kalterik.

Seigarrena. Halaber, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/1999 Foru Dekretuan agindutakoa betetzeko, espediente horri buruzko txostena eman zuen Arabako Hirigintza Batzordeak bere 4/2017 bilkuran, uztailaren 13an.

#### II. OINARRIAK

Lehenengoa. Aiarako planeamenduko arau subsidiarioen 7. aldaketaren espedientearen xedea da aldatzea Arespalditzan orain dagoen administrazio ekipamenduko sistema orokorren hirigintza kalifikazioa, hark ekipamendu orokorreko kalifikazioa izan dezan. Orain dagoen eraikina hiri lurzoru sailkatuta eta G8 Administrazioko Komunitate ekipamenduko Sistema Orokor kalifikatuta dago.

Aldaketa justifikatzen da Arespalditzako Administrazio Batzarrak benetako premia daukalako eraikin bera izaera desberdineko hainbat erabilera bateragarritarako bideratzeko, zeinak indarrean dagoen araudia oinarri ez baitira baimentzen. Hain zuzen ere, "El Ferial" izeneko eraikina da. Administrazio egoitza eta kontzejuaren bilera gune gisa erabiltzen da; baita kutura eta gizarte erabilerarako ere.

Hartara, eta orokor gisa kalifikatuz gero ekipamendua, erabilera berri baimendu eta bateragarriak sartzen dira, hala nola aisialdirako eta ikuskizunetarako erabilera eta administrazio erabilera.

Bigarrena. Proposaturiko aldaketarekin lortu nahi dena da indarreko araudia oraingo errealitateara egokitzea eta eraikin bererako erabilera bateragarriak malgutzea, modu horretan orain

dagoen ekipamenduari erabilera balioaniztuna emango zaiolarik. Horren ondorioz, gainera, eraikina gehiago erabiltzeko aukera egongo da, eta hori positiboa eta egingarria da.

Nolanahi ere, nahiz eta bideragarria den kultura eta gizarte erabilera ekipamendu orokorrera eranstea, ohartarazi behar da ezen, aisialdi eta ikuskizunetako erabileraren barruan, parte hartzea eragiten duten aisialdiko jarduerak bazter utzi beharko lituzketela "jolas parkeak" edo muga bat ezarri haietarako, jarduera bat baita, definizioz area handietan egin beharrekoa, eta zeinen instalazioek ezaugarri bereziak baitauzkate, haien erabilerari eta parte hartzaileak jasotzeko gaitasunari dagokionez.

Hortaz, ñabartu egingo da araudiaren artikuluko hori, eta modu orokorrean baztertuko da jolas parkearen erabilera, aisialdiko erabilera zehaztuz, halako moldez non hura argi eta garbi islatuko baita, planeamendu orokorraren 7. aldaketak xede duen "El Ferial" esparruko ekipamendu eskalarekin bat eta harekin bateragarri.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Aiarako planeamenduko arau subsidiarioen 7. aldaketaren espedienteak, Arespalditzako El Ferial ekipamendu publikoaren aldaketari buruzkoa, baldintza batekin, eta da bazter uztea jolas parkearen erabilera xehakaturik "El Ferial" eraikinaren ekipamendu generikoaren sistema orokorraren erabilera bateragarrietan.

Bigarrena. Baldintza hori ez da funtsezkoa. Beraz, hura zuzendutakoan espedienteak Foru Aldundiari igorriko zaio, jendaurrean jartzeko izapide berri baten beharrik gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, eginbideak egin ditzan eta argitara dezan.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du eta beronen aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 20a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**